

@@@EBAZPENA, 2011ko ekainaren 15ekoa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, euskarazko literatura-argitalpenetarako laguntzak emateko Balioespen Batzordeko kideak izendatzeko dena. @ @ @

Kulturako sailburuaren 2011ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez (2011ko maiatzaren 31ko EHAA, 102. zenbakia), euskarazko literatura-argitalpenetarako laguntzak emateko araubidea ezarri, eta deialdia egin zen.

Aipaturiko aginduaren 10. artikuluan xedatzen denez, balioespen-batzorde batek aurkezten diren eskabideak aztertu, eta Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearentzat ebazpen-proposamen bat emango du, eta, sailburuorde horren ebazpen bidez, batzorde horretako kideak izendatu, eta batzordearen osaera argitara emango da.

Horregatik, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.- Balioespen Batzordeko kideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea. Batzordeak, beraz, honako kide hauek izango ditu:

Batzordeburua: XXXXXXXXXXXXX, Kultura Sustatzeko zuzendaria.

Batzordekideak:

- XXXXXXXXXXXXX, Kultura Saileko Kultura Plangintzarako arduraduna.

- XXXXXXXXXXXXX, Kultura Saileko teknikaria, batzordeko idazkari jardungo duena.

- XXXXXXXXXXXXX, Euskal Editoreen Elkarteak proposatutako ordezkaria.

- XXXXXXXXXXXXX, Gremio de Editores de Euskadi - Euskadiko Editoreen Elkarteak proposatutako ordezkaria.

Bigarrena.- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, herritar guztiek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 15a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,  
ANTONIO RIVERA BLANCO.